# Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. 1. EDIZIOA

Ikastaro honetan, gure gizarteetan dauden maskulinitatearen adierazpenak eta adierazpen horiek emakumeengan eta gizonengan beraiengan dituzten ondorioak aztertuko ditugu. Aldi berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerantz egin diren aurrerapenak, agertu diren erresistentzia nagusiak eta diskurtso sexista berriak aztertuko ditugu. Indarkeria matxistaren eta horren kausa eta adierazpen ohikoenen azterketan sakonduko dugu.

#MASKULINITATEAK




Oinarrizko Prestakuntza

## MATRIKULA

**Ikastaroaren data**
MARTXOAREN 3TIK APIRILAREN 8RA

**Matrikulazioaren data**
HASIERA: URTARRILAK 20
BUKAERA: OTSAILAK 23

**25 orduko prestakuntza egiaztatua**

**Ikastaroaren hizkuntza** EUSKARA

## IRAKASLEA

**Sergio Fuente.**
Berdintasun Agentea (EHU-UPV).

**Karlos García.**
Genero, Maskulinitateak eta Gizarte-ekintzan espezializazioa (EHU eta Madrilgo Konplutentsea).

**Eman izena hemen**

## HELBURU OROKORRAK

- Maskulinitateen eraikuntza soziala berdintasun ikuspegiarekin aztertzeko ahalmen teoriko eta praktikoak garatzea.
- Errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak eskuratzea, baita errealitatea ulertzeko modua ematen duten tresna metodologikoak ere.
- Emakumeen berdintasunerako aurrerapausoen aurrean agertutako erresistentzia nagusiak eta diskurtso sexista berriak identifikatzea.
- Maskulinitateen eraikuntza sozialaren eta indarkeria matxistaren arteko lotura aztertzea.

## UNITATE DIDAKTIKOAK

**1. MODULUA**
Sexu-genero sistema. Generoaren sozializazioa. Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerien gaur egungo egoera.

**2. MODULUA**
Identitate maskulinoak eraikitzea. Sexismoak gizonengan dituen ondorioak: zaintzak, arriskua...

**3. MODULUA**
Maskulinitateak eta indarkeria matxista.

**4. MODULUA**
Gizonekin lan egitea maskulinitate hegemonikoak deseraikitzeko.


Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO